

	PRIBATASUN POLITIKA	Data/Fecha: 2018/05/25
		1 .orria 6 -tik

Nor da zure datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna?

BERA BERA RUGBY TALDEA kirol elkarte (aurrerantzean, "BERA BERA") da arduraduna; G-20144630 du IFK zenbakia, eta helbide honetan du egoitza: Anoeta Pasealekua, 10 20014 DONOSTIA/GIPUZKOA.

Gurekin arremantetan jartzeko:

- Posta elektronikoa: info@berabera.eus
- Telefonoa: 943 291292

Nola eskuratu ditugu zure datu pertsonalak?

Bide hauetatik eskuratu ditugu zure datu pertsonalak: (i) publikoaren eskura dauden iturrietatik eta (ii) zuk aurrez BERA BERA-rekin izan dituzun harremanen bitartez edo gaur egun gure erakundearekin dituzun harremanen bitartez, elkarteko bazkide edo harpideduna zarelako; elkarteak antolatutako zerbitzu edo ekitaldietan parte hartu duzulako, zerbitzuen hornitzaile zarelako, edo gure jarduerari buruz informazioa bidaltzeko eskatu duzulako.

INPRIMAKIAK

Baliteke inprimaki fisikoen bidez edo BERA BERA-ren web-orriko inprimakien bidez eskuratzea edo eskuratu izana datu horiek.

SARE SOZIALAK

Gero eta ohikoagoa da sare sozialak erabiltzea eta, ildo horretan, sare gehienetan presentzia du BERA BERA-K. Zurekin harremana izateko beste bitarteko bat da.

Batzuetan, online eta publikoaren eskura dagoen informazio pertsonala barne hartzen du sare sozialen bidez biltzen dugun informazioak. Beti ziurtatzen dugu erabilitako informazio guztia dagokion iturriarekin lotzen dugula, edo anonimo bihurtu dugula.

Litekeena da sare sozial horiek beren pribatutasun-politikak edukitzea, eta haien bidez azalduko dizute nola erabiltzen eta partekatzen duten zure informazio pertsonala. Sare sozialak erabili aurretik pribatutasun-politikak kontuz berrikusteko gomendatzen dizugu, zure informazio pertsonala biltzen eta partekatzen den moduarekin ados zaudela ziurtatzeko.

WEBGUNEA

Gure webgunea bisitatzen duten erabiltzaile guztiei buruzko informazio pertsonal mugatua eta estatistika orokor izengabeak biltzen eta biltegitratzen ditugu, dela zuk aktiboki jakinarazi diguzulako informazio hori, dela gure webgunean nabigatzen ari zarelako, besterik gabe. Biltzen dugun informazioak barne hartzen ditu, besteak beste, erabiltzen duzun gailuaren Internet protokoloaren (IP) helbidea, nabigatzeko erabiltzen duzun programa, zure sistema

	PRIBATASUN POLITIKA	Data/Fecha: 2018/05/25
		2 .orria 6 -tik

eragilea, zer egunetan eta ordutan sartu zaren, zer webguneren Internet helbidetik sartu zaren gure webguneetara eta nola erabiltzen duzun gure webgunea.

Gure webgunea zenbat denboran kargatzen den, nola erabiltzen den, zenbat bisita jasotzen dituen eta erabiltzaileentzat informazio mota erakargarriena zein den jakiteko baliatzen dugu informazio hori. Horrez gain, lagungarria da webguneak behar bezala funtzionatzen duen identifikatzeko eta, funtzionamenduan akatsik edo errorerik hautematen badugu, horiek konpondu eta gure webgunearen errendimendua hobetzeko, horrenbestez, erabiltzaile guztiei zerbitzu hobea eskaini ahal izateko.

Informazio hori cookie bidez biltzen dugu; gehiago jakin nahi baduzu, cookieen politika kontsulta dezakezu, BERA BERA-ren webgunean.

ZER DATU PERTSONAL TRATATZEN DITUGU?

Datu hauek tratatuko ditugu, aurrerago azalduko ditugun legezko xedeetarako:

- Zurekin harremana izateko behar diren datuak:
 - Izena
 - Abizenak
 - NAN
 - Adina
 - Sexua
 - Helbide elektronikoa
 - Telefonoa
 - Posta-helbidea
 - Banketxe datuak

- Aurretiaz zurekin izan ditugun harremanetan borondatez eman badizkiguzu, beharbada datu hauek ere izango ditugu:
 - Ikasketak
 - Egoera zibila
 - Lanbidea Okupazioa
 - Zer enpresa- eta/edo lanbide-sektoretan diharduzun eta/edo interesatzen zaizun
 - ...

- Jakinarazten dizugu, halaber, tratatu egingo ditugula zuk etorkizunean FICOBArekin dituzun harremanetan eta interakzioetan borondatez ematen dizkiguzun datu gehigarriak ere, sare sozial baten edo beste aplikazio baten bitartez ematen dizkiguzunak barne.



PRIBATASUN POLITIKA

Data/Fecha:
2018/05/25

3 .orria 6 -tik

Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Gure xede soziala betetzeko; hau da, kirol atal ezberdinen jarduerak, kirol ekitaldi antolaketa, kirol zerbitzuak eta ikastaro antolaketa, erakusketak, biltzarrak, mota ezberdinetako ekintzak eta bestelako ekitaldiak antolatu eta kudeatzeko eta, zehazki, honetarako:

- BERA BERA-ren jardueri buruzko informazioa bidaltzeko, SMS bidez, telefonoz, posta arruntez nahiz posta elektronikoz, baita gure harremana amaitu eta gero ere, interesdunak aurkakoa adierazi ezean.
- BERA BERA-k kudeatu edo antolatzen dituen ekintza edo ekitaldietara gonbidatzeko.
- Gogobetetze-inkestak egiteko.

Horrez gain, zure datuak tratatzen ditugu aurrez parte hartu duzun jarduera edo ekimenen antzekoei buruzko sustapen-jakinazpenak bidaltzeko, baita bitarteko elektronikoen bidez ere.

Interesdunak aurka egin diezaioke halako sustapen-jakinazpenak jasotzeari, orain edo beste edozein unetan, mezu elektronikoa bidaliz info@berabera.eus helbide elektronikora edo eskabide bat bidaliz gure posta-helbidera, guztia ere DATUEN BABESA erreferentziarekin.

Zer dela-eta trata ditzakegu zure datu pertsonalak?

BERA BERA-rekin harremana baduzu bazkide zarelako, edo elkarteko zerbitzuak erabiltzen dituzulako, zilegi dugu zure datuak tratatzea, harreman horien ondoriozko kontratu-betebeharrak betetzeko beharrezkoa baita.

Parte hartu duzun BERA BERA-ko jarduera edo ekimenen antzekoei buruzko informazioa bidaltzeko ere trata ditzakegu zure datu pertsonalak, gure erakundearen interes zilegia baita eta indarrean den araudiak horretarako baimena ematen baitu.

Inprimakietan eskatutako datuak, oro har, ezinbestekoak dira (dagokion eremuan aurkakoa adierazi ezean) aurreko atalean zehaztu diren helburuak –gure xede sozialari dagozkionak– betetzeko. Beraz, ez badira ematen eskatutako datuak edo ez badira zuzen ematen, ezingo ditugu bete xede horiek.

Noiz eta zergatik jakinaraz diezazkiekegu zure datuak hirugarren batzuei?

Zure datuak jarraian adierazitako hartzaileei laga diezazkiekegu, jarraian azaldutako arrazoiengatik:

- Administrazio publikoei: BERA BERA-k, bere jarduera dela eta, bete behar dituen lege-betebeharrak betetzeko.



PRIBATASUN POLITIKA

Data/Fecha:
2018/05/25

4 .orria 6 -tik

- Hirugarren batzuei, ezinbestekoa bada horiek lagatzea borondatez parte hartzen duzun jardueren ondoriozko betebeharrak betetzeko.
- Hornitzaileei, BERA BERA-k haiekin kontratatu dituen zerbitzuak emateko zure datuak behar badituzte. BERA BERA-k beharrezko eta araudiak xedatutako kontratuak sinatu ditu haiekin, konfidentzialtasunari eta datu pertsonalen tratamenduari dagokienez, zure pribatutasuna babesteko.

Etorkizunean zure datu pertsonalak lagatzen baditu BERA BERA-k, behar bezala jakinaraziko dizugu.

Zenbat denboraz gordeko ditugu zure datuak?

Zuk BERA BERA-rekin duzun harremanak iraun bitartean gordeko ditugu zure datu pertsonalak, eta edozergatik dela ere harreman hori amaitu eta gero, legearen arabera aplikatzekoak diren preskripzio-aldian zehar. Hala bada, legez nahiz kontratuz ditugun betebeharrak 4nón ditugula egiaztatzeko besterik ez dira tratatuko. Preskripzio-aldia amaitu eta gero, zure datuak ezabatuko edo, bestela, 4nónimo bihurtuko dira.

Zer eskubide dituzu?

Sarbidea izateko, zuzentzeko, ezabatzeko eta eramangarritasunerako, tratamendua mugatzeko eta/edo hari aurka egiteko eskubideak balia ditzakezu, gorago adierazi diren posta-helbidearen eta helbide elektronikoaren bidez.

Hauek dira eskubide horiek:

SARBIDE ESKUBIDEA

BERA BERA-n zuri buruzko datu pertsonalak tratatzen ditugun jakin nahi baduzu, horri buruzko baieztapena jasotzeko eskubidea duzu, baita BERA BERA-k zuri buruz dituen datu pertsonaletara sarbidea izateko ere.

ZUZENTZEKO ESKUBIDEA

Zure datu pertsonalak oker badaude BERA BERA-k horiek zuzen ditzala eskatzeko eskubidea duzu, baita, osatu gabe badaude, horiek osa ditzala eskatzekoa ere.

EZABATZEKO / AHAZTUA IZATEKO ESKUBIDEA

Zure datu pertsonalak ezaba daitezela eska dezakezu, besteak beste, datu horiek jadanik ez direnean beharrezkoak horiek biltzea eragin zuen xederako.



PRIBATASUN POLITIKA

Data/Fecha:
2018/05/25

5 .orria 6 -tik

MUGATZEKO ESKUBIDEA

Datuen tratamendua mugatu dadila eskatzeko eskubidea duzu; hala egiten baduzu, erreklamazioak baliatzeko edo haietaz defendatzeko soilik erabiliko ditugu.

ERAMANGARRITASUNERAKO ESKUBIDEA

Eskubidea duzu zure datu pertsonalak formatu egituratuan jasotzeko, eta formatu hori erabilera komunekoa eta mekanikoki irakurtzeko modukoa izateko; datuak beste tratamenduradun bati helarazteko, tratamenduaren oinarria baimena edo kontratu bat bada; eta hori guztia bitarteko automatizatuen bidez gauzatzeko.

AURKA EGITEKO ESKUBIDEA

Aurka egin diezaiokezu BERA BERA-K, interes publikoa nahiz zilegia harturik oinarri, zure datu pertsonalak tratatzeari. Hala egiten baduzu, zure datuak tratatzeari utziko dio BERA BERA-k, salbu eta ezinbesteko arrazoi legitimoak baditu edo erreklamazioak baliatzeko edo haietaz defendatzeko beharra badu.

Halaber, zure datu pertsonalen tratamenduak araudia edo zure pribatutasun-eskubideak urratzen dituela uste baduzu, erreklamazioa jar dezakezu:

- Gure erakundearen, adierazitako posta-helbidearen edo helbide elektronikoaren bidez.
- Datuak Babesteko Espainiako Agentzian, haren egoitza elektronikoaren edo posta-helbidearen bidez.

COOKIE POLITIKA

Zer dira cookie-ak?

Cookie-ak testu artxibo txikiak dira, zure ordenagailuan deskargatzen direnak webgune batera sartzen zarenean.

Ez dira birus gaiztoak, baizik eta Interneten era askotako zerbitzuak emateko funtsezko papera betetzen duten tresnak. Web-ean zein hizkuntzatan nabigatu nahi duzun gogoratzeko, webgunearen funtzionaltasuna optimizatuko duten estatistikak jasotzeko edo zure sare sozialetan gure edukiak partekatzeko balio dute, besteak beste.

Nolako cookie-ak erabiltzen ditu web orri honek?

- Cookie teknikoak. Guk geuk sortu eta kudeatutakoak dira, aukera ematen dutenak gure web orrian nabigatzeko eta bertako aukera eta zerbitzuak baliatzeko.
- Analisi cookie-ak. Guk geuk edo hirugarrenek tratatutakoak, aukera ematen digutenak web orriko erabiltzaile kopurua kuantifikatzeko eta web orriaren erabilpenaren estatistikak neurtu eta aztertzeko.

	PRIBATASUN POLITIKA	Data/Fecha: 2018/05/25
		6 .orria 6 -tik

Inolaz ere ez dugu eskuratzen erabiltzaileen datu pertsonalik eta bermatuta dago webean nabigatzen duen ororen pribatutasuna.